



#### COMITE D'HONNEUR

Comtesse **Andrée DE JONGH** fondatrice du réseau **COMÈTE** "Dédée" (†)

**Jean-François NOTHOMB** "Franco" (†)

**Micheline UGEUX** "Michou" - **Andrée ANTOINE-DUMONT** "Nadine" - **Janine DE GREEF** Robert et **Yvonne LAPEYRE** (†) - **Joséphine CASTET** "Fifine" - **Lucienne SABOULARD - DASSIE** "Lulu"

## Antolatzailea: "Les Amis du Réseau Comète" elkartea

# "Comète" sarearen zeharkaldia Euskal Herrian barrena

16. edizioa

2015eko 11, 12 eta 13an

**Ziburutik Errenteriarainoko oroitzapenezko ibilbidea «Comète» sareko mugalariek eta II-Mundu Gerrako hegazkinlari aliatuek erabiltzen zuten bideen barrena.**

#### GARRANTZITSUA

Programa hau denontzat da interesgarria. Ibiltariak programa ezberdin bat izango dute, adierazten den bezala, eta larunbateko ibilbiderako jatekoa eraman beharko dute.

**OHARRA:** 2015eko irailaren 13rako, 85 pertsona baino ezin izango dira bazkaltzera joan Beraungo Elkartera. Izen-emateak pixkanaka egingo dira, iritsi ahala.

## Informazioa eta izen-emateak

Juan-Carlos Jimenez de Aberasturi  
Ayuntamiento de Renteria  
20100 Renteria  
mail : jcaberasturi@errenteria.net

Jeannot Dassié  
117, rue des 4 cantons  
64600 Anglet  
tel : 05 59 03 51 48  
jedassie@numericable .fr

### **PROGRAMA**

#### **2015eko irailaren 10a, osteguna.**

Atzerriko ordezkariak iritsiko dira.

**20:00:** "Comète Sarearen Lagunak" Batzordearen ordezkariak batek harrera ez-formal bat egingo du jatetxe honetan: LE BAR BASQUE, 21 boulevard Thiers 64500- Donibane Lohitzune.

#### **2015eko irailaren 11a, ostirala**

**10h45:** Ekitaldi bat egingo da Donibane Lohitzunen hildakoen omenezko monumentuan. Lore-eskaintza.

**11h15:** Ohorezko ardoa, Donibane Lohitzuneko Herriko (35/40 pertsona gutti gorabehera).

**12h30, punttuan: ANGELU-SUTARRERA** doan autobusa (27 eserleku) Donibane Lohitzuneko Gare Routière geltokitik aterako da.

**13h00: ANGLET-SUTAR, LARRE** aterpetxean, plakaren inaugurazio ofiziala. **SALDIAS** andreak hamaietakoa eskainiko die hurbiltzen direnei bere izeba Marthe **MENDIARAREN** omenez.

**16h30:** Hitzordua Baionako Saint-Léon hilerriaren hego sarreran eta Edouard eta Cyprienne Dassieren hilobian elkarretaratzea.

**17h30:** Hitzordua Angelun, "Villa Voisin" etxearen aurrean. Hainbat leku bisitatuko dira. Etxea 2015eko urrian eraitsiko dute eta aterpetxe bihurtuko da, la Residence Comète. Kanpoan, iragan historikoaren oroigarria mantenduko da. Leku hau oso garrantzitsua izan zen erresistentziarako.

**18h30:** Ekitaldi bat egingo da Angelun hildakoen omenezko monumentuan.

**19h00:** Hitzordua Angeluko erriko Etxean oroitzapenezko plakaren aurrean. ANGELUKO Alkatea den Claude Oliven hitzaldia izango da, baita "Amis du Réseau Comète" elkarteko presidentearena ere. Comète kamiseta berrien salmenta. Ohorezko ardoa Herriko Etxeko jai-aretoan.

**20h15:** Adiskidetasun afaria Izarlilia jatetxean, LAHONCEN. (35/40 pertsona gutti gorabehera).

**22h30:** Donibane Lohitzunera itzultzea.

### **2015eko irailaren 12a, larunbata**

**8h30:** Autobusa (55 plaza) Donibane Lohitzuneko Gare Routière geltokitik aterako da.

**9h00:** Elkarretaratzea Sokoa-Zibururen hilerrian. Kattalin Agirre eta Florentino Goicoechearen hilobietan oroitzapenezko bi plaka jarriko dira.

**9h30:** Ziburuko udalak aperitibo bat eskainiko du SOKOAKO LE BELLARA jatetxean.

**10h30:** Ibiltariak URRUGNERANTZ abiatuko dira.

**12h00:** URRUGNEKO hildakoen omenezko monumentuan ekitaldi bat egingo da. URRUGNEKO Udalak ohorezko ardoa eskainiko die beterano eta laguntzaileei. Ibiltariak ibilbidea jarraituko dute ekitaldia amaitutakoan.

**12h45:** Beterano, laguntzaile, eta autobusaren gidariarentzat nekazal-bazkaria. Ibiltariak otordua egingo dute mendian, bakoitzak bere janaria eramango du. Ibilbidea jarraituko dute Bidasoa ibaiaraino.

**14h15:** Beteranoak eta laguntzaileak, nekazal-bazkaria amaitutakoan:

\* Mayalen Larretcherekin elkartuko dira. Mayalen, Sorhueten emaztea, eta bere semea Jean Baptiste, Jatxu Baita baserrikoa. Euren familiak 120 hegazkinlari aliatu hartu zituzten etxean.

\* Urrugnen, Bidegainberri baserrian geldialdia.

Etxe honetan, Dédée de JONGH, Frantxa USANDIZAGA eta Juan LARBURU atxilotuta izan ziren. Baserri honetan iheslariak elkartzen ziren mendiko bidea hartu baino lehen.

**15h00:** Autobusak beteranoak eta laguntzaileak San Migeleraino eramango ditu.

**15h30/16h00:** Ibiltari guztiek Bidasoa ibaia zeharkatuko dute San Migelen.

Eguna bukatzeko, sardinada handia parte-hartzaile guztientzat.

**18h00/ 18h30:** Ibiltariak, beteranoak eta laguntzaileak autobusez itzuliko dira Donibane Lohitzunera.

### **2015eko irailaren 13a, igandea.**

**7h30:** Ibiltarien autobusa (55 plaza), Donibane Lohitzuneko Gare Routière geltokitik aterako da San Miguel aldera.

**8h00:** Ibiltariak Bidasoa ibaia utziko dute, eta mendian barrena, Errenteria aldera joango dira.

**10h30:** Beterano eta laguntzaileentzat. Mikrobusa Donibane Lohitzuneko Gare Routière geltokitik aterako da mendira, eta ibiltariak hamaiketako egiten dutenean geldialdia egingo dute. Ondoren, Oiartzungo Sarobe baserrira joango dira. **13h00:** Sarobe baserrian geldialdia.

**13h15:** Ibilaldia jarraituko dute ibiltariak, eta Donostiako Autobus geltokiraino (ibilaldia hasi baino lehen plano bat emango zaie), edo OSPITAL Mikrobusa itxoin dezakete bazkaria egingo den lekura joateko.

**14h45:** Errenterian, Beraungo Elkartean elkartuko gara denok. Bertan, izen-ematea egin duten lehenengo 85 pertsonak bazkaltzera joango dira. Gainerakoak beste jatetxe batera joango dira (salneurri bera izango du bazkari horrek), eta bazkaldu ondoren, taldea topa egiteko elkartuko da berriro.

**15h00:** Parte-hartzaile guztientzat bazkaria.

**16h30:** Parte-hartzaile guztiak, OSPITAL Mikrobusez eta BENGOETXEA autobusez (errefortzu gisa), Donibane Lohitzuneraino itzuliko dira.

## **ANTOLAKUNTZA**

Asteburuan zehar joan-etorri gutiak behar bezala burutzen direla ziurtatzeko, antolatzaileek autobus zerbitzu bat jartzea pentsatu dute ibiltarientzat, horiek zeharkaldiaren irteera lekuetara errazago hel daitezten larunbatean eta igande goizean, eta igande arratsaldean Errenteriatik itzulera ere errazagoa izan dadin.

Era berean, igandean BERAUN Elkarteko bazkarian eta ostiral gauean IZARLILIA jatetxean, zehatz-mehatz zenbat bazkaltiar izango diren jakitea komeni da.

## **OSO GARRANTZITSUA.**

Horretarako, plaza erreserbatu behar da, eta erantsi den izen-emate orria bidali data hau baino lehenago:

## **2015eko abuztuaren 25a**

Data horren ondoren ezin izango da izenik eman, ezta izen-emateak bertan behera utzi ere, kontuan hartuta antolakuntzaren beharrak. Ulertuko duzuela espero dugu.

### TARIFAK

- **1. Formula: 95 euro** hiru egunengatik, barruan direla ostiraleko afariak, garraioak, larunbateko sardinada eta igande eguerdiko bazkaria.

Edota

- **2. Formula: 50 euro** bi egunengatik, barruan direla garraioak, larunbateko sardinda eta igande eguerdiko bazkaria.

Edota

- **3. Formula: 35 euro** igandearengatik bakarrik, barruan direla eguerdiko bazkaria eta garraioak.

ou

- **4. Formula: 25 euro Ostiral gaueko afariarentzat, soilik. Garraiorik ez da sartzen.**

ou

- **5. Formula: 15 euro** larunbaterarengatik bakarrik, barruan direla sardinada eta garraioak.

### OSTATUAK

Neurrizko prezioetan ostatu hartzeko interesa duten pertsonak leku hauetara jo dezakete:

URRUGNE: ostiral gauerako, larunbat gauerako eta igande gauerako. Camping "JUANTCHO" Route de la Corniche D912 Socoa 64122 URRUGNE

Tel/Fax: 05-59-47-11-97 - E-mail: [juantcho64@gmail.com](mailto:juantcho64@gmail.com)

Etxe mugikorra 4/5 pertsonentzat. Etxe mugikor bakoitzeko prezioa / Gutxienez bi gau +1 kotxe bat : 135 euro

Izen-emateak eta informazioa Kanpinean zuzenean.

Antolatzaileek ez dituzte hoteletan eta bestelako lekuetan erreserbarik egingo. Bakoitzak nahi duena aukeratu dezake.

Donibane Lohitzune ingurune turistikoko batean kokatuta dago, eta denboraldia ez da irailean bukatzen. ONDO PENTSATU!

## Nahietazko inskripzio-orria

ABIZENAK :

IZENA :

HELBIDEA :

TELEFONO ZENBAKIA:

1. FORMULA: 95 euros    2.: 50 euros    3.: 35 euros    4.: 55 euros    5.: 15 euros

**\*Markatu biribil batez hautatutako formula.**

Ibilaldia hasi baino lehen ordaindu behar dira adierazi diren tarifak derrigorrez, ondoren aipatzen diren modu hauetako bat erabiliz:

- Diru-sarrera egiteko kontu-korrontea::

BANKUAREN KODEA	BULEGOAREN KODEA	KONTU ZBKIA	RIB KODEA
17959	00028	85022 026 901	08

**IBAN (International Bank Account Number)**

**FR76 1795 9000 2885 0220 2690 108 BAMYFR22**

- Frantzia ordaintzeko moduko banku-txekea.

- Diru-sarrera PAYPAL kontuan (Euro eremutik kanpokoentzat, Geoff COOPERREN bitartez)

### 2015eko abuztuaren 25a baino lehen

Honen bidez aitortzen dut badakidala zeintzuk diren ibilaldiaren baldintzak eta berari atxikitzen natzaiola.

.....(e)n, 2015eko abuztuaren .....(e)an

## ***OHAR GARRANTZITSUA***

Ibilaldiak ez dauka zailtasun handirik. Dena dela, komenigarria da mendian ibiltzera ohituta egotea eta ekipo egokia izatea (botak, euritarako arropa, kapa, eta abar). Halaber, antolatzaileen gomendioak errespetatzea komeni da. Bidasoa ibaia gurutzatuko dutenez, ibilaldian parte hartzen dutenei gomendatzen zaie arropa aldaketa kontuan hartzea eta uretan ibiltzeko oinetako proposak eramatea.

Ibilaldian zehar otorduak ziurtatuta daudenez gero, nahikoa da ur dezente, fruitu lehorrak edo barra energetikoak eramatea, beharrezkoak gertatu ere. Gainera, parte-hartzaile bakoitzak bere ardurapean egingo du zeharkaldia eta, horregatik, bere aseguru partikularra eduki beharko du.

Antolatzaileek ez dute beren gain hartuko zeharkaldian gerta litekeen inolako gorabeheraren erantzukizunik.